

229/2021 DEKRETUA, azaroaren 2koa, Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, VIII. kapituluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko zerga gisa sortu eta arautzen du uraren kanona. Era berean, Eusko Jaurlaritzari ahalmena eman dio araudi hori garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan, eta gaikuntza orokor horren osagarriak dira legearen zenbait manutan ezartzen diren gaikuntza bereziak ere.

Erregelamendu honek 8 kapitulu eta 21 artikulua ditu, eta uraren kanona aplikatzeko araudia garatzea du helburu. Uraren kanona Euskal Autonomia Erkidegoko zerga bat da, eta Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean sortu eta arautu zen.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean egindako aldaketek –uraren kanona arautzeko dagokionez– (Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legearen Bigarren eta Seigarren Azken Xedapenen bitartez, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legearen Azken Xedapenetako Bigarrenaren bitartez ere) Uraren Kanonari buruzko Erregelamendu berri bat behar dute, aldaketa horiek egokitu eta garatu ahal izateko; modu horretan, ordeztu egingo da Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko eta Finantzarioari buruzko azaroaren 4ko 181/2008 Dekretua.

Aldaketa horien helburua da diru-bilketaren kudeaketa sinplifikatzea eta erraztea, bai eta uraren kanonari buruzko zerga-betebeharrak betetzea ere, ingurumenaren nortasun-ezaugarriak indartuz, zerga-oinarria uraren beste kontsumo-erabilera batzuetara zabalduz, eta ekitatearen eta kudeaketa eraginkorraren printzipioak errespetatuz.

Zergaren helburuak lehengo bera izaten jarraitzen du: ura nondik hartzen den kontuan izan gabe, ura edukitzea, Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitu ahal izateko. Ez da jabari publikoaren erabilerarako kanona.

Horrela, dekretu honi erantsitako erregelamenduan, I. kapituluan erregelamenduaren xedeari, Uraren Euskal Agentziaren eginkizunei eta uraren kanonari aplikatu beharreko araudiari buruzko aipamen orokorrak egin ondoren, II. kapituluan zerga-egitateari, zergapeko ez diren kasuei, salbuespenei eta hobariei buruzko alderdiak garatzen dira. Aurrerago, tributuen subjektuei eta sortzapenari buruzko artikulua daude, III. eta IV. kapituluetan, hurrenez hurren.

Halaber, V. kapitulua zerga-oinarriari eta hura zehazteko metodoei buruzkoa da (zenbatespen zuzena, objektiboa eta zeharkakoa), eta VI. kapitulua, berriz, karga-tasari eta kuotari buruzkoa. VII. kapituluan uraren kanonaren kudeaketari buruzko artikulua daude, eta, azkenik, VIII. kapituluan arau-hausteengatiko eta zehapenengatiko prozedurak aipatzen dira, bai eta egiaztapen- eta ikerketa-prozedurak ere.

Dekretuak bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

Azaroaren 4ko 181/2008 Dekretuari dagokionez, honako alderdi hauei buruzko artikuluetan egindako aldaketak azpimarratu behar dira: zerga-egitatea, zergapetu gabeko kasuak, salbuespenak eta hobariak, subjektu pasiboa, eta kudeaketaren eremua.

Hori dela eta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrira, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2an egindako bilkuran proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Uraren kanonari buruzko Erregelamendua onartzea. Dekretu honen eranskinean dago haren testua.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honen 17. artikuluan aurreikusitako hasierako adierazpena aurkeztu behar duten pertsona eta erakunde zergadunek sei hilabeteko epea izango dute horretarako, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik hasita.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu hau indarrean jarri aurretik emandako salbuespenek eta hobariak, erregelamendu honen 6. artikuluan jasota ez dauden erabilerei dagozkienek, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera galduko dute indarra.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.– Hobariak eta konpentsazioak 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako ura hartzeagatik edo sartzegatik.

1.– Erregelamendu honen 6.3 artikuluan ezarritako hobaria 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko ura hartu edo sartzegatik sortutako zerga-oinarriaren % 100ekoa izango da.

Era berean, pertsona eta entitate zergadunak salbuetsita egongo dira 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko ura hartzeagatik edo sartzegatik dagokien kanona aitortzetik eta likidatetik, baldin eta hobari hori aplikatzekoa bada ura hartzeko edo sartzeko ekintza horri.

Uraren Euskal Agentziak ofizioz berrikusi eta itzuliko dizkie pertsona edo entitate zergadunei aurreko paragrafoan adierazitako % 100eko hobaria autolikidazioetan ez aplikatzeagatik bidegabeki egindako diru-sarrerak, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bestalde, erregelamendu honen 17. artikuluan ezarritako hasierako aitorpena aurkezteko betebeharra betetzeko epea 2025eko abenduaren 31ra arte luzatzen da nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerarako ur-hartzeetarako edo -sarreretarako, dekretu honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

2.– Nekazaritza eta abeltzaintzarako ura sareko horniduraren bidez jasotzen duten pertsona eta entitateentzako konpentsazioa, erregelamendu honen 6 bis artikuluan ezarria, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango da.

2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretan ura baliatzeagatik sortutako kanonaren eraginaren % 100ekoa izango da konpentsazio hori.

2022ko eta 2023ko ekitaldietako konpentsazioa 2025eko ekainaren 30era arte eskatu ahal izango da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira azaroaren 4ko 181/2008 Dekretua (Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko eta Finantzarioaren Erregelamendua onartzen duena) eta erregelamendu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio dekretu honetan aipatzen diren ereduak onartzeko. Eredu horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau 2022ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 2an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

ERANSKINA, URAREN KANONARI BURUZKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN
AZAROAREN 2KO 229/2021 DEKRETUARENA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Erregelamendu honen xedea da uraren kanonaren araudia garatzea. Kanon hori Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean sortu eta arautu zen.

2. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Uraren Euskal Agentziari dagokio uraren kanona kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.

2.– Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan diruzaintza-arloan eskumena duen sailak, horretarako sinatutako hitzarmenaren arabera, betearazpen-bideko diru-bilketa egin ahal izango du, eta lortzen diren diru-sarrerak Uraren Euskal Agentziak jasoko ditu.

3. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

Uraren kanona lege-xedapen hauetan aurreikusitakoaren arabera dago araututa: Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean, erregelamendu honetan, erregelamendu hau garatzeko araudian eta tributuen araudi orokorrean.

3 bis artikulua.– Prozedura eta izapidetze elektronikoa.

1.– Uraren kanonari buruzko informazio-fitxa, eta eskabideak eta deklarazioak aurkezteko formularioak eta erregelamendu honetan aurreikusitako administrazio-izapideak formalizatzeko gainerako eredu normalizatuak <https://www.euskadi.eus/> webgunean daude eskuragarri, helbide honetan:

https://www.euskadi.eus/kanon_tasa_zerga/uraren-kanona/web01-tramite/eu/

Helbide horretan, agiri horiek guztiak betetzeko jarraibideak ere eskuragarri egongo dira. Formulario horietan, Administrazioarekiko jakinarazpen- edo komunikazio-bidea hautatuko da, eta jakinarazpen- edo komunikazio-abisuen datuak emango dira.

2.– Administrazio-izapideak eta erregelamendu honetan aurreikusitako ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egin ahal izango dira (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>), hargatik eragotzi gabe administrazioarekin harreman elektronikoa izateko betebeharrak ez duten pertsona fisikoak posta arruntaren bidez komunikatzea edo aurrez aurre joatea.

Halaber, pertsona edo entitate interesdunek «Nire karpeta» atalaren bidez ezagutu ahal izango dute beren administrazio-espedienteen egoera.

Egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak erabiliko dira. Hemen eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

3.– Uraren Euskal Agentziak, erregelamendu honetan aurreikusitako kasuetan, beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla eta horiek mantentzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa bilduko du eskura dauden elkarreragingarritasun-mekanismoen bidez edo administrazio publikoen datuak trukatzeko plataformaren bidez, salbu eta pertsona edo entitate interesduna aurka agertzen bada;

kasu horretan, aurkeztu egin beharko du. Uraren Euskal Agentziak ezin badu dokumentazio hori eskuratu, kausa edozein dela ere (hura lortzeko bideragarritasun teknikorik eza barne), pertsona edo entitate interesdunak eman zaion epean aurkeztu beharko du.

4.– Pertsona edo entitate interesdunek lege-ordezkarri baten bidez izapidetu ahal izango dituzte. Ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango da, baldin eta modu fidagarrian jasota geratzen bada, betiere Herritarrei arreta integrala eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan ezarritako baldintzetan.

Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, hemen: <https://www.euskadi.eus/>.

II. KAPITULUA

ZERGA-EGITATEA, ZERGAPEKOAK EZ IZATEA, SALBUESPENAK, HOBARIAK ETA KONPENTSAZIOAK

4. artikulua.– Zerga-egitatea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean ur kontinentalak hartzea da zergapeko egitatea, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzeko edo kontsumitzeko, ura erabiltzeak ingurunean sor dezakeen eraginari erreparatuta.

2.– Zerga-egitatearen barruan egongo da Euskal Autonomia Erkidegoan bere lurraldetik kanpokoak diren ur kontinentalak sartzeari, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzeko edo kontsumitzeko badira.

3.– Ingurumen arloko xedea duten ur kontinentalak hartzeari edo sartzeari dagokionez, ulertuko da horrek ez dakarrela uraren erabilerarik edo kontsumorik.

5. artikulua.– Zergapekoak ez diren kasuak.

Uraren kanonetik kanpora egongo dira uraren hartze edo sarrera hauek:

a) Itsasoko urak.

b) Euri-urak edo ur-isurketak.

c) Ura berriro erabiltzea industriarako edo beste erabilera batzuetarako. Halakoetarako, ura berriro erabiltzearen kontzeptua azaltzeko, Ur araztuak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duen abenduaren 7ko 1620/2007 Errege Dekretuak jasotakoa hartuko da kontuan.

6. artikulua.– Salbuespenak eta hobariak.

1.– Kanona ordaindu beharretik salbuetsita daude ur kontinentalen hartze eta sarrerak, erabilera edo kontsumo hauetarako:

Ura kontsumozko eran ez erabiltzea energia lortzeko edo indar eragilea baliatzeko.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo entitate zergadunek eskabide bat aurkeztu behar diote Uraren Euskal Agentziari, ezartzen den ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, kontsumozkoa ez den erabilera hori gertatzen den lekuaren kokapen-planoa aurkeztu behar dute, eta, hor, ura hartzeko eta itzultzeko puntuak adierazi behar dituzte, baita hartutako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatuak ere.

b) Hartu, eta erabili gabe ingurunera hargunetik gertu kalitate berarekin eta tenperatura berdinean itzultzen den ur-bolumena, administrazio-emakida edo -baimenean edo indarrean dagoen plan hidrologikoan ezarritakoaren arabera errespetatu beharreko emari ekologikoaren parte gisa itzultzen dena.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo entitate zergadunek eskabidea aurkeztu behar dute Uraren Euskal Agentzian, ezartzen den ereduaren arabera, eta, horrekin batera, memoria tekniko bat aurkeztu behar dute (honako hauek barne: planoak, funtzionamendu-memoriak, txostenak; eta eskatzaileak egoki deritzon dokumentazioa edo bitarteko oro). Memoria horretan, egiaztatu behar da ur-bolumen horiek aurreko paragrafoan adierazitakoa betez itzultzen direla ingurunera, eta, memorian bertan, bolumen horietako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatua zehaztu behar da.

c) Urtean 200metro kubiko baino gutxiagoko ur-hartzeak edo ur-sarrerak.

Salbuespen hori aplikatzeko, ez da beharrezkoa izango pertsona edo entitate zergadunek Uraren Euskal Agentziari eskabide bat aurkeztea.

2.– Aurreko apartatuan araututako albuespenak aplikatzeko, uren azaleratzea edo aprobetxamendua ustiatzeko administrazio-baimena edo -emakida eduki beharko da, 16. artikuluan ezartzen den autolikidazioari dagokion formularioan jasoko den eran.

3.– Zerga-oinarrian % 90eko hobaria izango du nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko ura hartzeak edo sartzeak, baldin eta pertsona edo entitate zergadunak Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiatze baten titularrak badira edo nekazaritza-ustiatzearen txartela badute. Gainera, uren azaleratzea edo aprobetxamendua ustiatzeko administrazio-baimena edo -emakida eduki beharko da, non adieraziko baita urak abeltzaintza- edo ureztapen-erabilera izango duela, 16. artikuluan ezartzen den autolikidazioari dagokion formularioan jasoko den moduan.

Hobari hori aplikatzeko, ez da beharrezkoa izango pertsona edo entitate zergadunek Uraren Euskal Agentziari eskabide bat aurkeztea.

4.– Uraren Euskal Agentziak ofizioz egiaztatuko du artikuluko honen 1., 2. eta 3. apartatueta ezarritako baldintzak betetzen direla, eta edozein unetan eskatu ahal izango die pertsona edo entitate zergadunei betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezaten. Era berean, betetzen direla ikuskatu eta kontrolatuko du, aldizkako ikuskapen-planen bidez. Plan horiek Uraren Euskal Agentziaren urteko ikuskapen-planean sartuko dira.

Gainera, beharrezkoa izango da albuespen edo hobari horiei dagokien ur-bolumena bereizita kuantifikatu ahal izatea, ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatu indibidualizatuen bidez. Sistema horren bidez ezin bada zehaztu ur-bolumen albuesia edo ur-bolumen hobariduna, administrazio-baimen edo -emakidan ur-erabilera bakoitzerako adierazten den ehunekoari jarraituko zaio, edo, hori ezinezkoa bada, administrazio-baimen edo -emakidan adierazitako ur-erabilerak hartuko dira oinarri, horietako bakoitzari ehuneko bera aplikatuta.

5.– Irregularitasunik, faltsutasunik edo iruzurrezko ekintzarik hautematen bada 1., 2. eta 3. apartatueta araututako albuespenak eta hobariak aplikatzean, edo horiek emateko oinarri izan zen dokumentazioan irregularitasun edo faltsutasunen bat, dagokion erregularizazioa egingo da, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretua aplikatuko dira. Hala badagokio, pertsona edo entitate zergadunek erregularizazioaren ondoriozko zerga-zorra kitatu beharko dute, araudi horretan ezarritakoaren arabera, baina horrek ez du eragotziko zehapen-prozedura bat ireki dakien. Era berean, albuespen edo hobari horiek ematea ezeztatu edo aplikatzea ukatu ahal izango da, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

Bi kasuetan, organo horrek ebazpen-proposamena jakinarazi beharko die pertsona eta entitate zergadunei, 15 eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Aurreko izapidea bete ondoren, ebazpena emango du, egindako alegazioei buruz erabakitzeko, halakorik egonez gero.

6 bis artikulua.— Sareko urez hornitutako nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako konpentsazioa.

1.— Nekazaritza eta abeltzaintzarako ura sareko horniduraren bidez jasotzen duten pertsona eta entitateek konpentsazioa eskatu eta jaso dezakete, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera horiek direla-eta uraren kanonak beren fakturan duen eraginagatik.

2.— Uraren Euskal Agentziak egingo du konpentsazio hori, 6.3 artikuluan ezarritako ehunekoa erabiliz, eta konpentsatu beharreko ekitaldiari dagokion karga-tasaren arabera kalkulatu da. Horretarako, Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiatze baten titularrak izateari edo nekazaritza-ustiatzearen txartela izateari dagokionez apartatu horretan ezarritako baldintza berberak bete behar dira. Gainera, kontratu bat izan behar dute, ura abeltzaintzarako edo ureztatzeko erabiltzen dela dioena, edo entitate hornitzailearen ziurtagiria, ura nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzen dela frogatzen duena.

Beharrezkoa izango da nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerari dagokion ur-bolumena bereizita kuantifikatu ahal izatea, ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatu indibidualizatuen bidez. Mekanismo horrek ura erabilera baterako baino gehiagorako neurtzen badu, eta, ondorioz, ezin bada modu bereizian kuantifikatu nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerengatik kanonaren eragina dela-eta konpentsatu daitekeen ur-bolumena, kontratuan edo entitate hornitzaileak emandako ziurtagirian adierazitako ur-erabileren kopuruan oinarrituta egingo da konpentsazioa.

3.— Konpentsazio hori aplikatzeko, pertsonak eta entitateek aurreko ekitaldiari dagokion eskaera aurkeztu beharko diote Uraren Euskal Agentziari, urte bakoitzeko lehen sei hilabeteetan, ezartzen den ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, aurreko apartatuan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiatze baten titularrak direla edo nekazaritza-ustiatzearen txartela dutela egiaztatzen duen agiria izan ezik, zeina Uraren Euskal Agentziak ofizioz egiaztatuko baitu. Hala ere, Uraren Euskal Agentziak edozein unetan eskatu ahal izango die konpentsazioa eskatzen duten pertsona edo entitateei betetze horren egiaztapenak aurkez ditzaten.

Halaber, pertsona edo entitate eskatzaileek konpentsazioaren xede diren entitate hornitzailearen uraren fakturen kopia eta ordainagiria aurkeztu beharko dituzte.

4.— Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak 1. apartatuko pertsonak eta entitateek aurkeztutako konpentsazio-eskaerari buruzko ebazpena emango du, araudiak eskatzen duen dokumentazio guztia agentziaren erregistroan sartu eta sei hilabeteko epean.

Organo horrek aurkeztutako konpentsazio-eskaera ukatu nahi badu, proposamen horren berri eman beharko die pertsona edo entitate eskatzaileei, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten 15 eguneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Aurreko izapidea bete ondoren, ebazpena emango du, egindako alegazioei buruz erabakitzeko, halakorik egonez gero.

5.— Baldin eta irregulartasunak edo faltsutasuna hautematen badira konpentsazioa emateko oinarri izan zen dokumentazioan, Uraren Euskal Agentziak, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, dagokion erregularizazioa egingo du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Dekretua aplikatuko zaio. Hala badagokio, 1. apartatuko pertsonak eta entitateak behartuta egongo dira bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzera, araudi horretan ezarritako itzulketa-prozeduraren arabera.

Organo horrek ebazpen-proposamena jakinarazi beharko die 1. apartatuko pertsona eta entitateei, 15 eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Aurreko izapidea bete ondoren, ebazpena emango du, egindako alegazioei buruz erabakitzeke, halakorik egonez gero.

7. artikulua.– Salbuespenen eta hobarien eraginkortasuna.

1.– Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak emango du 6.1.a) eta b) artikuluan araututako salbuespenak onartzeko ebazpena. Ebazpen hori sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaie pertsona eta entitate eskatzaileei, araudiak eskatutako dokumentazio guztia agentziaren beraren erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Organo horrek aurkeztutako eskabidea ukatu nahi badu, proposamen horren berri eman beharko die pertsona edo entitate eskatzaileei, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten 15 eguneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Aurreko izapidea bete ondoren, ebazpena emango du, egindako alegazioei buruz erabakitzeke, halakorik egonez gero.

2.– Adierazitako epean ez bada ebazpenik ematen, eskaerak administrazio-isiltasunez baietsitatzat jo ahal izango dituzte salbuespenen eskatzaileek.

3.– Pertsona edo entitate zergadunari ebazpena jakinarazten zaion urteari dagokion autolikidazioan eta ondorengo bi urteetan gauzatuko dira 6.1.a) eta b) artikuluan araututako salbuespenak.

Bestalde, 6.3 artikuluan ezarritako hobaria artikuluko horretan araututako betekizunak betetzen diren urteari dagokion autolikidazioan gauzatu ahal izango da.

4.– Uraren hartze eta sarrera salbuetsiek edo hobaridunek inola ere ez dute gainditu behar emakida edo baimenetan ezarritako bolumena.

5.– Ez badira betetzen emakidaren edo baimenaren baldintzak, edo ez badira betetzen salbuespenak edo hobariak emateko oinarria izan ziren 6. artikuluan ezarritako betekizunak, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak, hala badagokio, haiek baliogabetzeko edo aplikatzea ukatzeko ebazpena eman ahal izango du, eskatzaileei proposamena jakinarazi ondoren, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten 15 eguneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Aurreko izapidea bete ondoren, ebazpena emango du, egindako alegazioei buruz erabakitzeke, halakorik egonez gero.

Baliogabetzen bada, 6.1.a) eta b) artikuluan araututako salbuespenak aplikatzeko, beharrezkoa izango da beste eskabide bat aurkeztea; aldiz, 6.1 c) artikuluan araututako salbuespena eta 6.3 artikuluan ezarritako hobaria pertsona eta entitate zergadunek aplikatu ahal izango dituzte kasuan kasuko ez-betetzeak zuzendu bezain laster.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziak dagokion erregularizazioa egingo du, eta horri Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretua aplikatuko zaizkio. Hala badagokio, pertsona eta entitate zergadunek erregularizazioaren ondoriozko zerga-zorra kitatu beharko dute, araudi horretan ezarritakoaren arabera, baina horrek ez du eragotziko zehapen-prozedura bat ireki dakien.

6.– 6.1.a) eta b) artikuluetan araututako salbuespenei dagokienez, emakidaren edo baimenaren baldintzetan aldaketak gertatzen direnean, aldaketa horiek aplikatzeko beharrezkoa izango da beste eskabide bat aurkeztea, aldaketa horiek gertatu eta hilabeteko epean. Ez bada epe horretan aurkeztu, Uraren Euskal Agentziak aurreko apartatuan araututakoaren arabera jardungo du.

Bestalde, artikuluko honen 3. apartatuan aipatzen diren hiru urteak igarotzean, pertsona eta entitate

zergadunek beste eskaera bat edo erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, gutxienez salbuespenaren eraginkortasuna amaitu baino 3 hilabete lehenago. Ez bada epe horretan aurkeztzen, hasieran emandako salbuespena ez da beste hiru urterako berrituko.

7.– 6.1.c) artikuluan araututako salbuespenaren eta 6.3 artikuluan ezarritako hobariaren kasuan, pertsona edo entitate zergadunek Uraren Euskal Agentziari jakinarazi beharko dizkiote emakidaren edo baimenaren baldintzetan izandako aldaketak, gertatzen direnetik hilabeteko epean, baldin eta aldaketa horiek eragina badute haiek aplikatzeko ezarritako betekizunen betetzean.

Ez badira epe horretan jakinarazten, Uraren Euskal Agentziak aurreko 5. apartatuan araututakoaren arabera jardun ahal izango du.

Horretaz gainera, Uraren Euskal Agentziak, aldian behin, ofizioz berrikusiko du baldintza horiek betetzen diren.

III. KAPITULUA

TRIBUTUAREN SUBJEKTUAK

8. artikulua.– Subjektu aktiboa.

Uraren Euskal Agentzia da uraren kanonaren subjektu aktiboa.

9. artikulua.– Subjektu pasiboak.

1.– Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzeko edo kontsumitzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean ur kontinentalak hartzen edo sartzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak eta Zerga Lege Orokorren 35.4 artikulua aipatzen dituen erakundeak.

2.– Ondorio horietarako, kontrako frogarik ezean, pertsona eta entitate hauek hartuko dira subjektu pasibo zergaduntzat:

a) Ur-azaleratzea edo aprobetxamendua ustiatzeko gaitasuna ematen duen administrazio-emakida edo -baimenaren pertsona edo entitate titularra.

b) Ura hartzeko instalazioen pertsona edo entitate titularra, uraren jatorria denean administrazio-emakida edo -baimenik ez duen ur-azaleratze edo aprobetxamendu bat.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako banaketa-instalazioen entitate titularrak, baldin eta instalazio horietan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo hartutako ura sartzen bada, bertan erabiltzeko edo kontsumitzeko.

IV. KAPITULUA

SORTZAPENA

10. artikulua.– Sortzapena eta galdagarritasuna.

Ura hartzen den unean edo sarrera-unean sortzen da kanona ordaindu beharra, kontuan hartu gabe ea aldi berean eskatzen diren ordaindu beharreko zenbatekoa eta erregelamendu honen 16. artikuluan aurreikusitako aldizkako autolikidazioak.

V. KAPITULUA

ZERGA-OINARRIA

11. artikulua.– Zerga-oinarria.

1.– Ur kontinentalen hartze edo sarreren ur-kopurua da zerga-oinarria. Metro kubikotan adierazi beharko da.

2.– Zerga-oinarria zehazteko, honako modalitate hauetako bakoitzerako ezarritako arauak aplikatu ahal izango dira:

a) Zuzeneko zenbatespeneko sistema.

b) Zenbatespen objektiboko sistema.

c) Zeharkako zenbatespeneko sistema.

12. artikulua.– Zuzeneko zenbatespena.

1.– Orokorrean, zerga-oinarria zuzeneko zenbatespeneko sistemaren bidez zehaztuko da, hau da, hartutako edo sartutako ur kontinentalaren kopurua neurtuz; horretarako, ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatuak erabiliko dira. Hori dela-eta, zergadun gisa subjektu pasiboak direnak, behartuta daude, beren kontura, hartutako edo sartutako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatu bat instalatu eta mantentzera, ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dituen indarreko araudiaren arabera.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan bere lurraldetik kanpokoak diren ur kontinentalak sartzen badira Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzeko edo kontsumitzeko, zergadunek, beren kontura, aipatutako jatorria duen ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatu bat instalatu eta mantendu behar dute, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean sartzen den tokian edo gune horretatik ahalik eta gertuen, hura instalatzea teknikoki posible den tokian.

Ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatu hori Euskal Autonomia Erkidegoan instalatu ez bada, bilketa-puntuetan kokatutako zuzeneko neurketarako mekanismo homologatuen bidez zehaztuko da zerga-oinarria.

13. artikulua.– Zenbatespen objektiboa.

1.– Ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologaturik instalatuta ez daukaten ur-hartzeetan eta -sarreretan, edo, instalatuta edukita ere, funtzionamenduan ez daudenean, zenbatespen objektiboko sistemaren bidez zehaztuko da zerga-oinarria, kasuan kasuko aprobeitxamendua ustiatzeko baimen edo kontzesio administratiboan emandako urteko ur-bolumen osoaren arabera.

Zerga-oinarriaren zehaztapen hori behin-behinekoa izango da, hartutako edo sartutako ura zuzenean neurtzeko nahitaezko mekanismo homologatua ezarri arte, eta bateragarria izango da, hala badagokio, uraren kanonaren zerga-oinarria zuzenean zenbatespen aukera emango duen zuzeneko ur-neurketarako mekanismo homologatu bat izateko betebeharra ez betetzeagatik aurreikusitako zehapen-araubideak aplikatzearekin, bai eta dagokion baimen edo kontzesio administratiboarekin ere.

2.– Behar bezala justifikatuta eta Uraren Euskal Agentziak baimena eman ondoren eskaria egiten duten subjektu pasibo zergadunek zerga-oinarria zehaztu ahal izango dute zenbatespen objektiboko sistemaren bidez, baimendutako trantsizio-aldian bakarrik. Horretarako, ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dituen indarreko araudia bete beharko dute, eta, kasu horretan, beren konturakoak izango dira oinarria kalkulatzeko sistema hori aplikatzeak sor ditzakeen gastuak.

3.– Baimen edo kontzesio administratiborik ez badago, edo egon arren, baimendutako edo emandako ur-bolumen osoa adierazten ez bada, hileko zerga-oinarria honako formula hauen arabera zehaztuko da:

a) Lurpeko uren bilketen kasuan,

$$Q = \frac{37.500 \times P}{h + 20}$$

Non:

- «Q» hileko zerga-oinarria baita, metro kubikotan zenbatetsia.
- «P» talde jasotzailearen edo jasotzaileen potentzia nominala baita, kilowattetan.
- «h» zona horretako akuiferoaren batez besteko sakonera dinamikoa baita, metrotan.

b) Ur-bilketa ponpaketa bidez egiten den lurrazaleko uren aprobetxamenduen kasuan.

$$Q = \frac{37.500 \times P}{20}$$

Non:

- «P» talde jasotzailearen edo jasotzaileen potentzia nominala baita, kilowattetan.
- «Q» hileko zerga-oinarria baita, metro kubikotan zenbatetsia.

c) Aurreko apartatuetan aurreikusi ez diren aprobetxamenduetan, ur-bilketa grabitate bidez egiten denean, hodi baten edo batzuen bitartez:

$$Q = 480 \times Q_m$$

Non:

- «Q» hileko zerga-oinarria baita, metro kubikotan zenbatetsia.
- «Q_m» eroanbideak onartzen duen gehienezko emaria baita, orduko metro kubikotan adierazita.

14. artikulua.– Zeharkako zenbatespena.

1.– Uraren Euskal Agentziak zeharkako zenbatespen-sistema erabili ahal izango du, baldin eta zerga-oinarria zehaztu ezin badu zuzeneko zenbatespen-sistemaren bidez edo zenbatespen objektiboko sistemaren bidez, honako gertakari hauekiko batengatik:

a) Neurgailuak instalatzeko betebeharra bete ez delako, betiere zenbatespen objektiboaren sistemaren bidez kalkulatu ezin izan bada.

b) Derrigorrezko adierazpenak aurkeztu ez direlako, edo aurkeztutakoak behar bezain zehatzak edo osoak ez direlako edo gezurra diotelako.

c) Ikuskatze-lanari aurka egin zaiolako, aitzakiak jarri direlako edo uko egin zaiolako.

d) Kontularitzako edo erregistroko betebeharretan funtsezko ez-betetzeren bat izan delako.

e) Kontularitzako liburuak eta erregistroak edota horietan idatzitako eragiketen ziurtagiriak desagertu edo suntsitu direlako, ezinbestean gertatu bada ere.

2.– Uraren Euskal Agentziak arrazoitu egin beharko du zenbatespen-modalitate hori hartu izana, hura aplikatzeko arrazoi erabakigarriei buruzko txosten arrazoitu baten bidez, zerga-oinarria zehazteko hautatutako bitartekoen justifikazioaren bidez eta hautatutako baliabideen arabera egindako kalkulu eta estimazioen bidez.

3.– Zerga-oinarria zeharka kalkulatzeko, eskura dauden datu eta aurrekari esanguratsuak erabili ahal izango dira, bai eta dagokion ekonomia-sektorean normalak diren parametroen arabera zergapeko egitatea zeharka egiaztatuko duten elementuak ere, eta, era berean, subjektu pasiboek dituzten magnitude, indize, modulu edo datuak, antzeko kasuen edo kasu baliokideen datu edo aurrekarien arabera.

4.– Uraren Euskal Agentziak zerga-oinarriaren zeharkako zenbatespena erabiltzea bateragarria izango da, hala badagokio, uraren kanonaren zerga-oinarriaren zuzeneko zenbatespena ahalbidetuko duen zuzeneko ur-neurketarako mekanismo homologatu bat izateko betebeharra ez betetzeagatik aurreikusitako zehapen-araubideak aplikatzearekin, bai eta dagokion baimen edo kontzesio administratiboa izatearen betebeharrarekin ere.

VI. KAPITULUA

KARGA-TASAK ETA KUOTA

15. artikulua.– Karga-tasa eta kuota.

1.– Karga-tasa hau aplikatuko da: hiru euro-zentimo, ur metro kubikoko.

2.– Tributu-kuota kalkulatzeko, zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuko zaio.

VII. KAPITULUA

KUDEAKETA

16. artikulua.– Autolikidazioak eta informazio-ereduak.

1.– Subjektu pasibo zergadunek uraren kanona autolikidatu beharko dute, bai eta dagozkion informazio-ereduak aurkeztu ere Uraren Euskal Agentziari, epe hauetan:

a) Subjektu pasibo zergadunek aurreko urtean bildu edo sartu den ur-bolumenari dagokion autolikidazioa aurkeztu beharko diote urte bakoitzeko urtarrian Uraren Euskal Agentziari, ezartzen den ereduaren arabera.

b) Erabiltzaileei ur-hornidurak egiten dizkieten subjektu pasibo zergadunek, urte bakoitzeko lehenengo bi hilabeteetan, aurreko urtean bildutako edo sartutako ur-bolumen osoa identifikatuko dute, bai eta erabilera mota bakoitzean erabilitako edo kontsumitutako ur-bolumena (ihesak, galerak eta kontrolik gabekoak, etxeko eta egoitzako erabilerak, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak, industria- eta merkataritza-erabilerak, udal-erabilerak) eta kanonaren bidez salbuetsitako, hobaritutako eta kargatutako ur-bolumena ere, ezartzen den informazio-ereduaren arabera.

2.– Erabiltzaileei ur-hornidurak egiten dizkieten baina uraren kanona ordaindu behar duten subjektu pasiboak ez diren erakundeek, epe berean, artikulua honen 1. apartatuaren b) letran aurreikusitako informazio-eredua aurkeztu beharko dute Uraren Euskal Agentzian, altan emandako ur-bolumenei eta aurreko urtean erabilera-mota bakoitzean emandako bolumenei dagokienez.

3.– Uraren Euskal Agentziak ofizioz hasi ahal izango du uraren kanona likidatzeko prozedura, eta aitorpenak, autolikidazioak eta jakinarazpenak aurkezteko betebeharra betetzen dela kontrolatu ahal izango du, aplikatzekoa den zerga-araudian aurreikusitako kasuen arabera.

17. artikulua.– Hasierako adierazpena.

1.– Subjektu pasibo zergadunek hasierako adierazpen bat aurkeztu beharko diote Uraren Euskal Agentziari. Adierazpen horretan, informazio zehatza jaso beharko da hartutako edo sartutako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatuen eta harguneen egoerari buruz, bai eta uraren kanona aplikatzeko behar diren datuei eta elementuei buruz ere, ezartzen den ereduaren arabera.

2.– Hasierako adierazpena Uraren Euskal Agentzian aurkeztu beharko da, aprobetxamendua hasi eta hilabeteko epean.

3.– Aprobetxamenduaren inguruan adierazitako ezaugarrien edozein aldaketa Uraren Euskal Agentziari jakinarazi beharko zaio, aldaketa gertatu eta hilabeteko epean.

18. artikulua.– Zenbatekoak sartzea.

Subjektu pasibo zergadunek autolikidazioak aurkezteko unean sartu beharko dituzte uraren kanonaren zenbatekoak.

19. artikulua.– Fakturazioa.

Erabiltzaileei ur-hornidurak egiten dizkieten subjektu pasibo zergadunek, erabiltzaileei bidaliko dizkieten fakturretan, uraren kanonak duen inpaktuari buruzko informazioa eman beharko dute. Horretarako, fakturaren toki nabarmen batean eta ondo irakurtzeko moduan, esaldi hau jarriko dute gaztelaniaz eta euskaraz:

«Esta factura incluye el coste asumido por la entidad suministradora por el canon del agua de la Agencia Vasca del Agua-URA, por la afección al medio que su utilización pudiera producir

Faktura honetan sartuta dago Uraren Euskal Agentziaren uraren kanona dela-eta erakunde hornitzaileak bere gain hartutako kostua, uraren erabilerak ingurunean izan dezakeen eraginagatik».

VIII. KAPITULUA

ZEHATZEKO ETA IKUSKATZEKO AHALMENA

20. artikulua.– Arau-haustea eta zehapenak.

1.– Zerga-arloko arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean xedatutakoa aplikatuko da, eta, bestela, zerga-arloko arau-hauste eta zehapenen araubide orokorra erregulatzen duen araudia.

2.– Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera, organo hauei dagokie uraren kanonari buruzko arau-hausteen zehapen-espedienteak abiaraztea eta ebaztea:

a) Uraren Euskal Agentziaren zuzendariari, arau-hauste arinak eta larriak direnean.

b) Erabiltzaileen Batzarrari, oso arau-hauste larriak direnean.

3.– Uraren kanonaren zerga-oinarria zuzenean zenbatesteko aukera emango duen zuzeneko ur-neurketarako mekanismo homologatu bat edukitzeko betebeharra ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, eta Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean aurreikusitakoaren arabera zigortuko da.

21. artikulua.– Egiaztapena eta ikerketa.

1.– Uraren Euskal Agentziak horretarako izendatutako langileak arduratuko dira uraren kanonaren errendimendua sorrarazten duten eragiketak egiaztatzeaz eta ikertzeaz.

2.– Uraren Euskal Agentziak emango ditu egiaztapen eta ikerketa horietatik eratorritako likidazioak, eta agentzia berak ebatziko ditu jarduera horien aurka jartzen diren berraztertze-errekurtoak.